

EGINBIDEA: Ruth Alcala Tuñónek, neuk egikaritzen dut, Berrioplano/Berriobeitiko Udaleko idazkariak, dokumentu hau, 6 orri dituen, Gobernu Batzordearen 2026ko otsailaren 5eko bilkuran onartu zela jasota gera dadin. Berriobeitin, sinadura elektronikoaren datan.

**DEIALDIA, UDALTZAIN LAGUNTZAILE IZATEKO LANPOSTUA (D
MAILA/TALDEAREKIN PAREKATUA) ALDI BATERAKO KONTRATUAREKIN
BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA BAT HAUTAPROBEN BIDEZ ERATZEKO,
BERRIOBEITIKO UDALAN SORTZEN DIREN BEHARREI ERANTZUTEARREN.**

Honako hauek dira deialdiaren

OINARRIAK

LEHENA. Deialdiaren xedea

- 1.1. Deialdiaren xedea da udaltzain laguntzaile izateko lanpostua aldi baterako kontratuarekin betetzea izangaien zerrenda bat hautaprobek bidez eratzeko, Berriobeitiko Udaleko Herriarren Seguratasuneko arloan aritzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduaren 42.2 d) artikuluan aurreikusitako sistemaren bitartez.
- 1.2. Kontratazioaren xedea da aldi baterako betetzea Berriobeitiko Udalak lanpostu horretan dituen beharrak.
- 1.3. Deialdi honen babesean eratzten diren zerrendak indarrean izanen dira beste deialdi bat egin arte. Deialdi berria egitean, eratzten den zerrenda berriak ordeztuko ditu.
- 1.4. Lanaldi eta ordutegi erregimena zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta organo eskudunak edozein unetan aldatzen ahalko du aipatu beharrak betetzeko.
- 1.5. Lanpostuak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan D mailarako ezarritako ordainsariak izanen ditu. Horretaz gain, onesten diren osagarriak eta/edo, halakorik ez badago, plantilla organikoan lanpostu horretarako ezarrita daudenak.
- 1.6. Oinarri hauetan ezarri ez den orotan, honako arau hauei jarraituko zaie: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari (horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina) eta hura garatzen araudiari edo haren ordezkari; Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2019 Legeari eta Berriobeitiko Udaleko langileei aplikagarriak zaizkien hitzarmenei edo akordioei.

BIGARRENA. Parte-hartzaileen betebeharrak

2.1. Eskerak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira honako betebeharrak, hautaprobetan parte hartu izateko:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Dagozkion eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun funtzionala izatea.
- c) Hamasei urte beteak izatea eta ez gainditzea erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina.
- d) Eskola Graduatuko titulua, Lanbide Heziketako lehen mailako titulua edo horien baliokidea izatea, edo eskerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.
- e) Dolozko delitu batengatik kondenatua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzuetik kendua ere, eta ez egotea desgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauak jarraituz..
- f) Tokiko Poliziaren Laguntzaile habilitazioa izatea, Nafarroako Seguratasun eta Larrialdi Eskolak emana
- g) B motako gidabaimena edukitzea.

h) Langabezian edo enplegu hobekuntzarako egoeran izatea eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana egotea edo enplegurako beste zerbitzu publiko batean. Betebehar hori justifikatzeko, enplegu eskatzaile izatearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko enplegurako zerbitzu publikoak emana, eta indarrean egon beharko du.

2,2. Deialdi honen 2.1 oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen jarraitu beharko da hautapen-prozesuan zehar eta kontratazio-aldian zehar.

HIRUGARRENA. Parte hartzeko eskaeren prozedura eta aurkezpena

3,1. Aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan, bilatuko da kontratazioa ahalik eta arintasun handienarekin egitea, bat etorri Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin. Aintzat harturik premiazko kontratazio beharrak daudela, eta udalerrirako funtsezko zerbitzu baten emankizuna ez geldiarazteko, interes orokorraren eta bizilagunei zerbitzua ematearen defentsan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Berriobeitiko Enplegu Bulegoari enplegu-eskatzaileen zerrenda bat eskatuko zaio (enplegua hobetzekoak barne), deialdiaren bigarren oinarrian aipatzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztenena, eta zerrenda horretan sartzen direnek hautaprobetan parte hartzeko aukera izanen dute.

Prozesu hau ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoan Sartzeari buruzko Erregelamenduaren 42.2.d artikuluan ezarritakoarekin bat egingen da.

Era berean, hautapen-prozesuan onartzen ahalko dira baldintza horiek betetzen dituzten eta edozein enplegu-bulegotan enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntza egoeran dauden pertsona guztiak, baldin eta eskabidearekin batera egiaztatzen badute eskabidea aurkezten dutenean (horretarako, enplegu-eskatzaile txartela edo enplegua hobetzeko eskaera aurkeztu beharko dute).

3,2. Horretarako, dagokion Lan Eskaintza Publikoa aurkeztuko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

3,3. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Berriobeitiko Udalaren Erregistro Elektronikokoan ([https://sedeelectronica.berrioplano.es /](https://sedeelectronica.berrioplano.es/)) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz aurkeztu beharko dute eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera, 2026ko otsailaren 25ean (asteazkena), 23:59an, bukatzen den epean.

Epe hori luzaezina izanen da.

Deialdian parte hartzeko eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira Berriobeitiko Udalaren egoitza elektronikokoan berariaz diseinatutako izapidaren bidez; eta haietan izangaiek adierazi beharko dute baldintza guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko jarritako epea amaitzen den egunean.

3,4. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- Tokiko Poliziaren Laguntzaile habilitazioa, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emana.
- Enplegu eskaeraren edo enplegu hobekuntzaren egiaztatzea, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak edo enplegurako beste zerbitzu publiko batek emana, indarrean egon behar duena.

3,5. 2.1 d) apartatuan eskatzen den betebeharra deialdiaren unean frogatu beharko da agiri bidez.

Aski izanen da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

3,6. %33ko desgaitasuna edo handiagoa izanik parte hartzen dutenek, betiere desgaitasun horrek Tokiko Polizia Laguntzailea lanpostuari berez dagozkion eginkizunak betetzea ahalbidetzen duenean, horren berri eman beharko dute parte hartzeko eskabidean; gainera, organo eskudunak emandako dokumentazioa erantsi beharko dute, eskaneaturik, hori frogatzeko.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dituzten denbora edo baliabide egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean adierazi egin beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean, zer egokitzapen eskatzen duten zehaztu. %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsona horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziara bideratuko dira, proba egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak zehazteko.

LAUGARRENA Izangaiak onartzea

4,1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, alkateak izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta aginduko du argitara dadila Berriobeitiko Udalaren iragarki-taulan (fisikoa eta egoitza elektronikoa) eta udal webgunean.

4,2. Deialdi honi lotutako iragarki, jakinarazpen eta argitalpen guztiak argitaratuko dira oinarri aurreko apartatuan adierazitako tokietan.

4,3. Behin-behineko zerrenda adierazitako tokietan argitaratu eta hurrengo 5 egun naturaleko epean, izangai baztertuek erreklamazioak egiten ahalko dituzte eta beren eskabideetan egindako akatsak zuzendu, horrelakorik baldin bada, Berriobeitiko Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez.

4,4. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta haiek ebatzitakoan, alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko, eta jendaurrean jarriko dira Udalaren iragarki-taulan eta udal webgunean dagoen enplegu publikoaren atalean eta egoitza elektronikoan.

Izangai bazterturik ez bada, zuzenean argitaratuko da izangai onartuen behin betiko zerrenda.

4,5. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen direla aitortzeko. Behin aztertuta izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioak bere eskuetan daukana, ohartuz gero baldintzaren bat ez dela betetzen, izangaiek galdu eginen dituzte deialdian parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak.

BOSGARRENA Kalifikazio Epaimahaia

5,1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Epaimahaiburua: Felix Remirez Hoyos, Berriobeitiko Udaleko alkatea
Ordezkoa: Luis González Llorente, Berriobeitiko Udaleko lehen alkateordea.

1. epaimahaikidea: Xabier Martinez Urroz, Antsoingo Udaleko udaltzainburua.
Ordezkoa: Javier Urriaga Sanz, Antsoingo Udaleko udaltzaina.

2. epaimahaikidea: Roberto León Zaro, Berriobeitiko Udaleko udal agentea
Ordezkoa: Francisco Sanchez Aguilar, Antsoingo Udaleko udaltzaina.

Epaimahaikidea: langileen ordezkaria: Larraitz Osés Ripalda, Berriobeitiko Udaleko ordezkari sindikala
Ordezkoa: Jesus Maria López Goñi, Berriobeitiko Udaleko ordezkari sindikala.

Epaimahaikide idazkaria: Ruth Alcalá Tuñón, Berriobeitiko Udaleko idazkaria

Ordezkoa: Jesus Erburu Arbizu, Eguesibarko Udaleko idazkaria

5,2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, baldin badaude Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako jasotzen diren egoeretakoa batean.

Halaber, izangaiek epaimahaikideak errekusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

Epaimahaia aldatzen bada, abstenitzeko eta errekusatzeko legez ezarritako arrazoiak direla eta, izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera emanen da horren berri.

5,3. Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, bertan ez badago gutxienez kideen gehiengo osoa.

Halaber, epaimahaiaren eraketak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak egon beharko dute bertan.

5,4. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen diren gorabehera guztiak.

5,5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eskatzen ahalko du probarako.

Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta epaimahaiari horietan bakarrik emanen diote laguntza.

SEIGARRENA Deialdiaren garapena

6,1. Hautapen-prozesua adierazitako egunean hasiko da, eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da.

6.2 Hautapen-prozesuak baztergarria ez den proba bakarra izanen du, hau da, 20 galderako test motako galdetegi bati erantzun beharko zaio, hiru erantzun aukera izanen ditu, eta horietako bakarra izanen da baliozkoa. Hona hemen gai-zerrenda::

1. Berriobeitiko Trafikoari buruzko Udal Ordenantza: <https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2022/226/31>

2. Berriobeitiko Gizalegezko Jokaerei buruzko Ordenantza: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2023/131/16>

3. Berriobeitiko kale-izendegia (kaleak, industrialdeak, udal eraikinak...).

Ongi erantzundako galdera bakoitzak 2 puntuko balorazioa izanen du, eta gaizki erantzundako galderek 0,50 puntuko balorazio negatiboa.

6.3 Probarako dei bakarra egingen da. Parte-hartzaileek proba egitera agertu beharko dute aldean daukatela Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat.. Baztertuta geldituko dira agirien bidez nor diren frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak.

6,4. Hautapropa egiteko, behar diren eta posible diren egokitzapenak egingen dira desgaitasun aitorturen bat dutenendako, denbora eta baliabideen aldetik, eskabidean hala eskatu badute.

ZAZPIGARRENA Emaitzak

7,1. Ariketaren kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen du Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian zer puntuazio lortu den. Proben behin-behineko emaitzen kontra erreklamazioa paratzen ahalko da 3 egun naturaleko epean, emaitzak Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan argitaratu eta biharamunetik hasita.

7,2. Behin alegazioetarako epea iraganik, eta horiek ebatzirik, parte-hartzaileen puntuazioetan berdinketak izanez gero, kalifikazio epaimahaiak zozketa bakar bat egingen du hura hausteko. Berdindutako pertsona guztien artean, bat ausaz hautatuko da.

Berdinketa guztiak hurrenkera alfabetikoari jarraikiz deseginen dira, abiapuntu harturik zozketa horretan hautatzen den izangaiaren deiturak eta izena. Haren emaitzak jendaurrean argitaratuko dira Berriobeitiko Udaleko iragarki-taulan (taula fisikoa eta birtuala), bai eta udal webean ostatatua dagoen enplegu publikoaren atalean ere.

7,3. Behin aurkeztu diren alegazioak eta berdinketak ebatzi ondoren, epaimahaiak onartutakoan zerrenda argitaratuko du Berriobeitiko Udaleko iragarki-taulan eta udal webgunean ostatatua dagoen enplegu publikoaren atalean, puntuazioaren arabera hurrenkeran.

7,4. Oinarri honetan aurreikusitako jarduketak amaitu ondoren, epaimahaiak alkatetzara bidaliko du proba egin duten izangaien zerrenda, puntuazioaren arabera hurrenkeraren, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera, onar dezan.

ZORTZIGARRENA Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda kudeatzeko arauak

8.1.- Deia. Kontratatorako izangaien zerrendan daudenei dei egiten ahalko zaie, deialdiaren xedeko lanpostuetan sortzen diren beharren arabera, Berriobeitiko Udalaren aldi baterako langileak kontratatzeko zerrendak kudeatzeko erregelamenduarekin bat (<https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2017/13/9>)

8.2.- Lan kontratuak.

Deialdiaren xedeko lanpostua betetzeko izangaiei aldi baterako kontratu bat eskainiko zaie, kasuan kasuko behararen arabera iraunen duena, eta haren araubide juridikoa izanen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta hura garatzeko araudian ezarritakoa.

BEDERATZIGARRENA Baliabideak.

Deialdi honen, beronen oinarrien edo berau aplikatzeko egintzen aurka, kalifikazio-epaimahaiak emanak ez badira, honako errekurtsio hauekiko bat aurkez daiteke, hautara:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zeina zuzenduko baitzaio Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, errekurtsioaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den erabakia argitaratzen edo egintza jakinarazten denetik hasita.

Kalifikazio epaimahaiak ematen dituen egintzen eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahal da deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Eskabide eredua

..... jaun/andrea, adinez nagusia, N.A.N. zenbakia duena, jaiotze-data....., jaioa (herria), (herrialdea)..... (Estatua), bizitokia (herria)....., karrika....., zenbakia, solairua..... postakodea sakelako telefonoa....., helbide elektronikoa

zure aurrean agertu eta, bidezkoa den moduan, ADIERAZTEN DUT:

Berribeitiko Udaleko udaltzain laguntzailea izateko lanpostu bat aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat prestatzeko deialdian onartua izatea eskatzen dudala.

Deialdiaren arauak ezagutu eta berariaz onartzen ditudala, eta agiri hauek aurkezten ditudala:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Udaltzain laguntzaile izateko gaikuntza, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolak emana.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak-Nafar Lansarek edo beste enplegu zerbitzu publiko batek eginiko enplegu eskaeraren edo hobekuntzaren frogagiria. Frogagiri hori indarrean izan beharko du.
- Desgaitasunen bat duten parte-hartzaileek hura egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko dute, dagokion erakunde eskudunak emandakoa.

Desgaitasunik izanez gero (adierazi, hala badagokio):

- Desgaitasuna dudala eta, beraz, azaltzen den egokitzapena eskatzen dudala, adierazten diren arrazoiengatik. (Aparteko orrian desgaitasunaren arrazoiak eta eskatzen diren egokitzapenak adieraziko dira).
- Desgaitasuna frogatzen duen agiria, erakunde eskudunak emana, aurkezten dudala.

Eta ezarritako baldintza guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epealdiko azken egunean.

Horiek horrela, ESKATZEN DUT:

Eskabide hau tenorez eta moduz aurkeztutzat harturik, onartua izatea Berribeitiko Udaleko udaltzain laguntzailea izateko lanpostu bat aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda prestatzeko deialdian.

..... 2026ko
(Data eta eskatzailearen sinadura)

BERRIOBEITIKO UDALEKO ALKATEA

* DATUEN BABESA. Tratamenduaren arduraduna: Berribeitiko Udala. Helburua: deialdi honetako langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea